



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2016ko apirilaren 22a

56. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioiko goi karguen bateraezintasunei buruzko 19/1996 Foru Legea aldatzen duena. Akats zuzenketa (5. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Ebro ibaiaren garbitzeko beharrezkoak diren baimenak bizkor ditzan, ikusita Tuterako ureztatzaile-elkarteek bizi duten arazoa. María Carmen Segura Moreno andreak aurkeztu du (6. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da KiVa metodoa azter dezan, gure irakaskuntza-sisteman ezarri ahal izateko. María Esther Korres Bengoetxea andreak aurkeztu du (7. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat egin dezan Ebro ibaiaren eta bere ibaiadar Aragoi, Arga, Ega, Alhama, Linares, Queiles eta Odrónen ibilguen egiazko egoerari buruz. Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztu du (8. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azter dezan ea zer aldaketa egin behar den NA-160 errepidean, bere ahalmena handitzeko. Luis Casado Oliver jaunak aurkeztu du (9. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Erosketa Publiko Berritzailea kontratatze eta adjudikatzeko prozedurak erabakitasunez ezar ditzan. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldek aurkeztu du (10. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoa premiatzen dira eman beharreko baimenak eman ditzaten eta Ebro ibaiaren ibilgua garbi dezaten. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldek aurkeztu du (11. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak tortura baztertzeko eta Espainiako Gobernua premiatzeko du salbuespeneko legedia, atxilotuta inkomunikatua eta babesgabatasun-egoerak ahalbidetzen dituen, indargabetu ditzan. Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldek eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (12. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publiko eta pribatuetan eskolatzeari buruzko arauak alda ditzan, ekitatearen, sozializazioaren eta diskriminazio-ezaren irizpideak baliatuta. Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (14. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Altsasuko Josefina Arregui Klinika espezializatuaren funtsezko lana aintzatetsi dezan. Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa, Podemos-Ahal Dugu eta Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeek eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (15. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak berresten baitu 16/2012 Errege Lege-dekretuaren aurka dagoela, eta berriz ere adierazten baitu Nafarroan bizi diren pertsona guztiei osasun laguntza jasotzea bermatzen dien foru legearekiko konpromisoa. Eledunen Batzarrak onetsia (17. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten baititu Boko Haram erakunde kriminalak egindako indarkeria-ekintza guztiak. Eledunen Batzarrak onetsia (17. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna eta babeska eskaintzen baitizkie Ekuadorko lurrikarak kaltetutako pertsona guztiei. Eledunen Batzarrak onetsia (18. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Nafarroako Gobernuak Tuteran aldean A-68 autobiderako sarbideak ixteko harturiko erabakiari buruzkoa. Luis Casado Oliver jaunak egin du (19. or.).
- Galdera, Nafarroako Polizia Buruzagitza Nagusiari Espainiako bandera emateko ekitaldiari buruzkoa. Sergio Sayas López jaunak egin du (20. or.).
- Galdera, Panaman eta beste zerga paradisu batzuetan zergadun nafarrak ustez egoteari buruzkoa. Jokin Castiella Imaz jaunak egin du (20. or.).
- Galdera, 2016ko lehen hiruhilekoan Nafarroan sortutako enpresen kopuruari buruzkoa. Ana Beltrán Villalba andreak egin du (21. or.).
- Galdera, Nafarroako Unibertsitate Klinikatik Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzura igaroko diren gaixoen trantsizioarako lan-taldea osatuko duten Nafarroako Gobernu eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko profesionalen buruzkoa. Mónica Domenech Linde andreak egin du (21. or.).
- Galdera, uholdeek eragindako kalteak minimizatzeko eta prebentzioaren arloan lan egiteko xedez Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren, toki entitateen eta ureztatzaile-erkidegoen ordezkariekin lan-mahai bat eratze aldera Nafarroako Gobernuak egindako urratsei buruzkoa. Santos Cerdán León jaunak egin du (22. or.).
- Galdera, Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioarekin apirilaren 19an egin beharreko bilerari buruzkoa. Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak egin du (23. or.).
- Galdera, ikasleak Haur Hezkuntzako bigarren zikloan sartzeko adina malgutzeko aukerari buruzkoa. Carlos Gimeno Gurpegi jaunak egin du (23. or.).
- Galdera, Martzillako Marqués de Villena Bigarren Hezkuntzako Institutuaren hobetze-planari buruzkoa. Carlos Gimeno Gurpegi jaunak egin du (24. or.).
- Galdera, Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak apirilaren 14ko Osoko Bilkuran egindako adierazpenei buruzkoa, esan baitzuen Espainiako Gobernuak ez ziola jaramonik egiten Hitzarmena negoziatzeko bilerarako eskaerari. Ana María Beltrán Villalba andreak egin du (25. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren Ordezkaritza Espainiaren EBko Ordezkaritza Iraunkorren egotearen kostuari buruzkoa. Óscar Arizcuren Pola jaunak egin du (25. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren Europako Ordezkaritzan Europako gaiak direla-eta jasotako kontsultei buruzkoa. Óscar Arizcuren Pola jaunak egin du (26. or.).
- Galdera, Nafarroako Parlamentutik Europako bandera kentzeari buruzkoa. Óscar Arizcuren Pola jaunak egin du (27. or.).
- Galdera, Ecofin-en lan-taldeen bilereari buruzkoa. Óscar Arizcuren Pola jaunak egin du (27. or.).
- Galdera, Aditech-ek Espainiaren EBko Ordezkaritza Iraunkorretik alde egiteari buruzkoa. Óscar Arizcuren Pola jaunak egin du (28. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren Bruselako Ordezkaritzaren web orriari buruzkoa. Óscar Arizcuren Pola jaunak egin du (28. or.).

- Galdera, Ordezkaritzaren web orria (<http://na.bruselas.site/es>) sortzeko eduki diren baliabideei buruzkoa. Óscar Arizcuren Pola jaunak egin du (29. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren Bruselako ordezkariari buruzkoa. Óscar Arizcuren Pola jaunak egin du (30. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren Ordezkaritza Espainiaren EBko Ordezkaritza Iraunkorrean egoteari buruzkoa. Óscar Arizcuren Pola jaunak egin du (30. or.).
- Galdera, Europako Ekintza Plana taxutzearen kostuari buruzkoa. Óscar Arizcuren Pola jaunak egin du (31. or.).
- Galdera, Nafarroaren nazioarteko planak eta Moderna Plana taxutzeari buruzkoa. Óscar Arizcuren Pola jaunak egin du (31. or.).
- Galdera, Europako Ekintza Plana gauzatzeari begira Nafarroako Gobernuaren Bruselako Ordezkaritzan dauden langileei buruzkoa. Óscar Arizcuren Pola jaunak egin du (32. or.).
- Galdera, Nafarroak Europako erakundeetan egindako jardueren prentsa-oharrei buruzkoa. Óscar Arizcuren Pola jaunak egin du (32. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren Bruselako Ordezkaritzak beste erregio batzuen Bruselako bulego edo ordezkarietekin egindako bilereei buruzkoa. Óscar Arizcuren Pola jaunak egin du (33. or.).
- Galdera, Europako Ekintza Plana taxutzeari buruzkoa. Óscar Arizcuren Pola jaunak egin du (33. or.).
- Galdera, jakitekoa ea Nafarroako Gobernuaren Bruselako ordezkariak nola egingen dituen bateragarri Erregioen Batzordean egotea eta Ordezkaritzako bere eginkizun teknikoak. Óscar Arizcuren Pola jaunak egin du (34. or.).
- Galdera, Europako Ekintza Planeko jarduketa-ildoei buruzkoa. Óscar Arizcuren Pola jaunak egin du (34. or.).
- Galdera, Tuterako Reina Sofia Ospitalearen 30. urteurrena ospatzearen kostuari buruzkoa. Luis Casado Oliver jaunak egin du (35. or.).
- Galdera, premia bereziak dituzten ikasleentzako laguntzarako irakasleei buruzkoa. Alberto Catalán Higuerras jaunak egin du (35. or.).
- Galdera, Oinarrizko Lanbide Heziketan ikasle etorkinak eta gutxiengo soziokulturalak kaltetuetakoak artatzen dituzten Nafarroako ikastetxeei buruzkoa. Alberto Catalán Higuerras jaunak egin du (36. or.).
- Galdera, sendotze, orientazio eta laguntza programetan ikasle etorkinak eta gutxiengo soziokulturalak kaltetuetakoak artatzeko irakasleak dituzten Nafarroako ikastetxeei buruzkoa. Alberto Catalán Higuerras jaunak egin du (36. or.).
- Galdera, murgiltze programetan ikasle etorkinak eta gutxiengo soziokulturalak kaltetuetakoak artatzeko irakasleak dituzten Nafarroako ikastetxeei buruzkoa. Alberto Catalán Higuerras jaunak egin du (37. or.).
- Galdera, "Nafarroako Espezializazio Adimendunerako Estrategiaren Diagnostikoa Gaurkotzea" izeneko 2016ko martxoaren 30eko laburpen-dokumentuari buruzkoa. Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak egin du (38. or.).
- Galdera, Nafarroako Ospitaleguneko espezialitateetako autoderibazioei buruzkoa. Begoña Ganuza Bernaola andreak egin du (38. or.).
- Galdera, Hezkuntza Departamentuak Iruñeko Cardenal Ilundáin Ikastetxe Publikoko ikasleei Ingelesez Ikasteko Programako ebaluazio-probak egiteari buruzkoa. Alberto Catalán Higuerras jaunak egin du (39. or.).
- Galdera, Hezkuntza Departamentuak Iruñeko Cardenal Ilundáin Ikastetxe Publikoko ikasleei Ingelesez Ikasteko Programako ebaluazio-probak egiteko moduari buruzkoa. Alberto Catalán Higuerras jaunak egin du (40. or.).
- Galdera, Hezkuntza Departamentuak Iruñeko Cardenal Ilundáin Ikastetxe Publikoko ikasleei Ingelesez Ikasteko Programako ebaluazio-probak egin direnean bertan egon diren pertsona helduei buruzkoa. Alberto Catalán Higuerras jaunak egin du (40. or.).
- Galdera, Defentsa Ministerioak sustatutako 'Carta a un militar español' literatur lehiaketari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (41. or.).
- Galdera, Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluaren baitan sortutako Berdintasun Batzordearen lanari, helburu eta azterlanei, txostenei edo proposamenei buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (42. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—Deialdia, Nafarroako Kontuen Ganberaren zerbitzuko auditore izateko lanpostu huts bat lekualdatze lehia-keta bidez betetzekoa. Deialdia bete gabe gelditu da (43. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioko goi karguen bateraezintasunei buruzko 19/1996 Foru Legea aldatzen duena.

AKATS ZUZENKETA

Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioko goi karguen bateraezintasunei buruzko 19/1996 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proposamenaren izenburuan akats bat atzeman da. Foru Lege proposamena 2016ko apirilaren 1eko 45. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Beraz, akats hori zuzendu beharra dago:

Foru lege proposamenaren izenburuan, hauxe esan ordez:

*“Foru Lege proposamena, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioko goi karguen bateraezintasunei buruzko **16/1996** Foru Legea aldatzen duena”;*

Hauxe esan behar du: *“Foru Lege proposamena, Nafarroako Gobernuko kideen eta Nafarroako Foru Komunitatearen administrazioko goi karguen bateraezintasunei buruzko **19/1996** Foru Legea aldatzen duena”.*

Iruñean, 2016ko apirilaren 21ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Ebro ibaia garbitzeko beharrezkoak diren baimenak bizkor ditzan, ikusita Tuterako ureztatzaile-elkarteek bizi duten arazoa.

MARÍA CARMEN SEGURA MORENO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Carmen Segura Moreno andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Ebro ibaia garbitzeko beharrezkoak diren baimenak bizkor ditzan, ikusita Tuterako ureztatzaile-elkarteek bizi duten arazoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko apirilaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Mari Carmen Segura andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 196. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Tuterako ureztatzaile-elkarteen eskutik jakin du zer arazo dituzten azken uholdeen ondorioz eta, batez ere, ibaia garbitzeko lanik azken urteotan egin ez izanaren ondorioz.

Erreten, bide, isurbide, dike eta abarretan eragin negatiboa duten ezohiko uholdeen aitzinean babesik gabe sentitzen dira Ureztatze-elkarteak, ez baitute Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren

erantzunik jasotzen. Ebroko Konfederazio Hidrografikoak egindako lanak, berandu egiteaz gain, ez dira behar bezala egin.

Urtez urte, ibaia ez dragatzearen politika dela-eta, legarra eta lohia pilatzen ari da Ebro ibaiaren hainbat tartetan, eta horrek eragin kaltegarria du Tuterako zubiaren kasuan, erabilezin gelditzen baita zubiaren zati bat, halako moduan non murriztu egiten baitzaio iragate-ahalmena, eta igo egiten baitira uraldi-arriskua eta Alde Zaharrean ura sartzearen arriskua.

Elkarteek arazoak dituzte, halaber, ura erretenaraino igotzeko, ponpatzea eragozten dieten legarrak eta lohiak direla-eta. Hori oso larria da; izan ere, arriskuan jartzen du eskualde horretako nekazaritza- eta abeltzaintza-sektorea, zeinak berebiziko garrantzia baitauka Erriberako nekazaritza-elikagaien industriaren garapen ekonomikoari begira.

Mahai gainean dagoen beste auzi bat da El Belber-eko presa hidroelektrikoa –Endesaren jabetzakoa, Cabanillasen–. Ubide Inperialean ohol batzuk jarri ziren bertan, presaren garaiera handitzeko, eta horrek ondorio negatiboak sortzen ditu ibaian gora, enpresarentzat elektrizitate gehiago lortzeko helburu bakarrarekin.

Horregatik guztiagatik, UPN parlamentu-taldek honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

Nafarroako Parlamentuak, Tuterako ureztatzaile-elkarteen egoeraren jakitun, Nafarroako Gobernua premiatzen du honako jarduketak hauek egin ditzan:

1. Kasuko baimenak urgentziaz bizkortu, Ebro ibaia garbitzeko makineria egokiari dagokionez, Tuterako ureztatzaile-elkarteek bizi duten arazoa ikusita.

2. Ebroko Konfederazio Hidrografikoak azken uholdeak direla-eta egindako obrak berrikusi, eta behar diren erreklamazioak egin, ureztatzaile-elkarteek obra horiek direla-eta azaldutako gabeziak ikusita.

3. Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren eta Ubide Inperialaren arteko akordioa berrikusi, oho-

lek ibaian gora sortzen dituzten kalte larriak balioetsi eta ohol horiek udan ken daitezen exijitu, oholak jarri osteko lehen urteetan egiten zen bezala.

Iruñean, 2016ko apirilaren 11n

Foru parlamentaria: María Carmen Segura

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da KiVa metodoa azter dezan, gure irakaskuntza-sisteman ezarri ahal izateko.

MARÍA ESTHER KORRES BENGOETXEA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Esther Korres Bengoetxea andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita KiVa metodoa azter dezan, gure irakaskuntza-sisteman ezarri ahal izateko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko apirilaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Esther Korres Bengoetxea, EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko kideak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 196. artikulua eta hurrengoak

babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Finlandian *bullying* eta *ciberbullying* akosoan kontra ari dira lanean aspaldi. Bertan erabilia izan den eta erabiltzen ari den KiVa metodoa ezagutu dugu. Beste herrialde batzuetan ere inplementatu dute metodo hau eta badirudi oso emaitza onak ematen dituela. Hori gero bakoitzak bere herrialdera egokitu behar du, noski, bere gizarteko ezaugarrietara, hain zuzen ere.

Ebazpen proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du KiVa metodoa azter dezan gure herrialdera nola egokitu daitekeen ikuste aldera, beste herrialde batzuetan izan duen arrakasta kontuan izanda.

2. Azterketa egin ondoren, Nafarroako Gobernuak gure irakaskuntza sisteman inplementa dezan metodoa, betiere gure gizarteko ezaugarrietara egokituz.

Iruñean, 2016ko apirilaren 12an

Foru parlamentaria: Esther Korres Bengoetxea

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azterlan bat egin dezan Ebro ibaiaren eta bere ibaiadar Aragoi, Arga, Ega, Alhama, Linares, Queiles eta Odrónen ibilguen egiazko egoerari buruz.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen baita azterlan bat egin dezan Ebro ibaiaren eta bere ibaiadar Aragoi, Arga, Ega, Alhama, Linares, Queiles eta Odrónen ibilguen egiazko egoerari buruz.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzera, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko apirilaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 196. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuan hainbat ekimen aurkeztu dira Ebro ibaiko eta bere ibaiadarretako uholdeen ondorioak direla-eta.

Uholde horiek eragindako kalteak eta Ebro ibaiaren eta bere ibaiadarren ibilguen eta lubeten egoerak agerian gelditu dira, bereziki 2014ko azaroan eta 2015eko otsailan izandako gainezkatze eta uholdeen ondorioz.

Horrek guztiak eragin du udalek eta ureztatzaile-elkarteek edo -sindikatuak arloko administrazio eskudunei eskatzea –hots, Nekazaritzako, Elikadurako eta Ingurumeneko Ministerioaren mendeko CHE-Ebroko Konfederazio Hidrografikari eta Nafarroako Gobernu Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Departamentuari– egoera horien ondorioak ahal den neurrian arintzeko urratsak egin ditzaten.

Gertakari horiek sarriago errepikatu dira azken urteotan; areago, ohikoa bihurtzen ari da 113 errepide nazionala ixtea. 2013tik, errepide hori zortzi aldiz itxi zaio zirkulazioari. 2016ko lehen hilabete hauetan, birritan itxi da, eta aurreko aldietan baino emari askoz ere txikiagoekin.

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Departamentuak berak onartu du epe motzeko jarduketa gisa har daitezkeela “2015eko ekaineko foru aginduak eta azpiegitura kaltetuak konpontzeko nahiz tapoiak eta oztopoak kentzeko jarduketak. Fase hori bukatuta, epe ertain eta luzeko jarduketak planifikatzen hasi beharra dago, Nafarroako Gobernuaren eskumeneren barruan eta beste administrazio eskudun batzuekin koordinatuta”.

Apirilaren 8an, Nafarroako Parlamentuko Landa Garapeneko Batzordeko kideak bisitan joan ziren, hainbat ureztatzaile-elkarteren arduradunekin batera, Tuterako udal dermioko eremu ezberdinetara, eta bertatik bertara egiaztatu ahal izan zituzten Ebro ibaiaren ibilguren errealitatea eta gertatzen ari diren eragin-egoerak.

Nekazariak eta udalek sarriren planteatzen dituzten gaietako bat da ibaien ibilguri eta babes-lubetei ekiteko jardun beharra dagoela.

Ebroko Konfederazio Hidrografikoak onartu du Ebro ibaiaren zola metro bat baino gehiago hazi dela zenbait alderditan, eta legar-pilaketa errealitate bat dela, batez ere urte batzuetatik hona.

Halaber, nekazariak babes-lubeten egoera eta 2015eko azken uholdeen ostean eginiko haien berrezartzea salatu dute, bai eta ibilguren garbiketari ekiteko beharra azpimarratu ere.

Egoera bertsuan daude eta berehalako jarduketak behar dituzte Ebro ibaiaren zenbait adarrek ere. Aragoi, Arga, Ega, Alhama, Linares, Queiles eta Odrón banan-banan aztertu behar dira, egin beharreko jarduketa zehazteko. Horietakoren batean –esaterako, Alhaman–, egoera aztertzerakoan, toki batzuetan ez dago jakiterik zabortegei batean gauden, ala legar-hobi batean, mediterranean baso batean ala ibai baten ibilguan.

Gogoan hartu behar dugu, horrekin guztiarekin batera, Ebro ibaian eta bere adarretan uholdeak gertatu direnean Estatuko eta Foru Komunitateko

administrazioek laguntza-deialdi bana onetsi behar izan dutela, lubetak berrezartzeko eta kalte-tutako ureztatze- eta nekazaritza-azpiegiturak leheneratzeko. Horrek ageriko gastu bat eragiten du funts publikoei dagokienez.

Horregatik guztiagatik, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du azterlan xehakatu bat egin

dezan, zuzenean nahiz Ebroko Konfederazio Hidrografikoarekin koordinaturik, Ebro ibaiaren eta bere adarren (Aragoi, Arga, Ega, Alhama, Linares, Queiles eta Odrón) egoera errealarari buruz. Azterlan horretan ibai horien zolen eta babes-lubeten egoeraren deskribapen bat jasoko da.

Iruñean, 2016ko apirilaren 13an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azter dezan ea zer aldaketa egin behar den NA-160 errepedean, bere ahalmena handitzeko.

LUIS CASADO OLIVER JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Luis Casado Oliver jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita azter dezan ea zer aldaketa egin behar den NA-160 errepedean, bere ahalmena handitzeko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko apirilaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Luis Casado Oliver jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 196. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Institutuko bideak Tarazonako errepedearekin duen lotura ixteak esan nahi du hiriak duen irteeretakoa bat de facto kendu dela, eta horrek eztabaidatu du, Tuterak dituen sARBIDEEN gainea.

Tarazonako errepedean zehar egoitza publiko garrantzitsuak daude eskualde mailakoak direnak. Gainera, hiritik eskualdeko beste zerbitzu ezinbesteko batzuetara abiatzeko irtenbide bakarra da.

Institutuko bideak Tarazonako errepedearekin duen lotura ixteak areagotu egin du ibilgailuen eta autobusen trafikoa, areagotze hori jasateko nahiko narriatuta dagoen komunikazio bide batean.

Nafarroako errepedeen III. plan zuzendariko jarduketaren batean aurreikusten da NA-160 errepedean Tuterako sARBIDEAK hobetzea. Plana onetsi zenetik zenbat denbora iragan den ikusita, ez litzateke burugabea izan jarduketa-aldaketa bat planteatzea.

Bide horretako trafikoa handitzera joko du, populazioaren igoera hutsagatik, aipatu bidearen eragin-eremuan etorkizunera begira dauden hirigintza- eta merkataritza-planteamenduengatik, eta eskualdearen garapen industrialagatik. Gure parlamentu-taldeak ondoko erabaki proposamena aurkezten du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du azter dezan ea zer aldaketa egin behar diren NA-160 errepedean bere ahalmena handitzeko, eta horien artean aintzat har dezan errepede-bikoizketa, aurreko konponbide egoki bat ezarritik, 2018tik 2019ta bitartean eginen dena.

Iruñean, 2016ko apirilaren 13an

Foru parlamentaria: Luis Casado Oliver

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Erosketa Publiko Berritzailea kontratatzeke eta adjudikatzeko prozedurak erabakitasunez ezar ditzan.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Erosketa Publiko Berritzailea kontratatzeke eta adjudikatzeko prozedurak erabakitasunez ezar ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko apirilaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Erosketa Publiko Berritzaileak hainbat jarduketa administratibo biltzen ditu, kontratazio publikoaren bidez berrikuntza sustatzera bideratuta daudenak. Teknologia berritzailearen erosketa publiko bezala egin daiteke, edo merkaturatu aurreko erosketa publiko bezala.

Merkaturatu aurreko Erosketa Publikoan, merkatura iristetik oso urrun dagoen zerbitzu edo produktu bat kontratatzen da; Teknologia Berritzailearen Erosketa Publikoan, aldiz, administrazioak bere gain hartzen du “early adopter” izaera, prototipo-bezeroa izatea onartuta; horrenbestez, gobernuak arriskuaren parte bat hartzen dute beren gain, baina beren lurraldeko I+G+Bari laguntzen diote zirt edo zart.

Gainera, Erosketa Publiko Berritzailea finantzaketa mekanismo bat da, enpresentzat katalizatzaile jarduten duena merkaturako beharrezane

aurrea hartzeko, eta ikerketa akademikoak ere horri onura ateratzen ahal dio. Izan ere, teknologia-transferentziarako bidea da, herritarren, enpresen, administrazioaren, unibertsitateen eta prestakuntza-zentroen artean.

Espanian, Kontratu Publikoei buruzko 2007ko Legeak kontratazio mota horren aldeko apustu egiten du, Erosketa Publiko Berritzailea erraztuz, eta, halaber, tesia indartzen du Ekonomia Iraunkorrari buruzko Legearekin; Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioari (MINECO) eta Industria Garapen Teknologikorako Zentroari (CDTI) dagokiari koordinatu, egiaztatu eta bultzatzearen erantzukizuna. Era berean, Europa indar handiz babesten ari da erosketa mota hori, kontratazio mota hori onartzen duten jarduketei FEDER funtsak eskuratzen lagunduta.

Nafarroan, ikerketa- eta garapen-prozesuak abiaraztea sustatzen duen inbertsio hori ez da egituratu, objektibatu edo kontuan hartu, 2014ko abuztuan Nafarroako Gobernuak iragarri zuenetik “erosketa publikoko eredu berri bati bultzada ematea, enpresetan berrikuntza sustatzeko”.

Europa 2020aren helburua da berrikuntzan BPGd-aren % 3 inbertitzearaino iristea. EBri dagokionez, kontratazio publikoa BPGd-aren % 19 da; Espainiari dagokionez, berriz, % 18,5 (Kontratazio Publikoaren Behatokiaren –OdCP– datuak). Hala ere, honako hau da erreferentzia gisa erabiltzen den zifra: lizitazio publiko guztiaren % 3 izatea Erosketa Publiko Berritzaileari dagokiona.

Erabaki proposamena:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Erosketa Publiko Berritzailea kontratatzeke eta adjudikatzeko prozedurak erabakitasunez ezar ditzan. Horri begira, argi eta garbi zehaztuko du urteko kontratazio guztiaren zein portzentaje izan behar den mota horretakoa, eta portzentaje hori gorantz biribiltzeko konpromisoa hartuko du, halako moldez non Nafarroa lizitazio mota horren abangoardian kokatuko baita Europa mailan.

Iruñean, 2016ko apirilaren 14an

Eleduna: María Chivite Navascués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoa premiatzen dira eman beharreko baimenak eman ditzaten eta Ebro ibaiaren ibilgua garbi dezaten.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoa premiatzen baitira eman beharreko baimenak eman ditzaten eta Ebro ibaiaren ibilgua garbi dezaten.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko apirilaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldearen eledun María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoa (CHE) premiatzen dira beharrezkoak diren baimenak eman ditzaten Ebro ibaiaren ibilgua garbitzeko.

Tuterako ureztatzaile-elkartek lubeten konponketa kaskarra salatu zuten parlamentu-batzordean, baita Tuterako udal dermioan Ebro ibaiaren mantentze eta garbiketarik ez dela egiten ere. Hori Nafarroako Foru Komunitateko gainerako ibaiekin ere gertatzen da.

Egindako salaketak ikusita, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Batzordeak bisita egin zuen gune horretara, eta horri esker egiaztatu ahal izan zituen abandonu egoera, garbiketarik eta mantentzerik eza eta lubetetan egin ohi diren adabakiak.

Legarra, lohia eta enborrak pilatzearen ondorioz, urgentziaz jardun beharra dago ibaiaren ibilgua leheneratzeko eta ahalik eta ingurumen- eta paisaia-baldintza onenetan uzteko.

Orain Nafarroako Gobernuaren eta CHEren txanda da.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak honako erabaki proposamen hau aurkezten du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua eta Ebroko Konfederazio Hidrografikoa (CHE) premiatzen ditu berehala lanean has daitezen, beharrezkoak diren baimenak eman eta Ebro ibaiaren ibilgua garbitzeko, adarrak, lohia eta legarra kenduz.

Iruñean, 2016ko apirilaren 14an

Foru parlamentaria: María Chivite Navascués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak tortura baztertzen du eta Espainiako Gobernua premiatzen du salbuespenezko legedia, atxiloketa inkomunikatua eta babesgabetasun-egoerak ahalbidetzen dituen, indargabetu ditzan.

GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA ETA PODEMOS-AHAL DUGU PARLAMENTU-TALDEEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeek eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak tortura baztertzen baitu eta Espainiako Gobernua premiatzen baitu salbuespenezko legedia, atxiloketa inkomunikatua eta babesgabetasun-egoerak ahalbidetzen dituen, indargabetu ditzan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzera, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko apirilaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Dozenaka nafar izan dira Auzitegi Nazionalen epaituak "Dena da ETA" teoriaren gerizpean, izaera politiko nabarmeneko epaiketetan. Horren adibide dira Parlamentuan azken hiletan egin diren hainbat lan saio; adibidez, azkenean absolbitu dituzten Askapenako kideekin egindakoa. Horiek ere haien jardun politikoagatik epaitu zituzten, beste hainbat lagunekin gertatu den bezala.

Bi sumario ezberdinetan auzipetuta dauden eta laster epaituko dituzten nafar herritar batzuen ordezkariak egon ziren apirilaren 6an, Herritarreko eta Erakundeekiko Harremanetako Batzordean.

Gaur, apirilaren 14an hain zuzen, hasi da Jon Patxi Arratibel, Iñigo González, Gorka Mayo, Iker Moreno eta Gorka Zabalaren aurkako epaiketari; gizon horiek 2011ko otsailean atxilotu zituzten,

4/2014 sumarioaren esparruan; eta 2010eko irailean 8/2013 sumarioaren barnean atxilotu zituzten Joxe Aldasoro, Eneko Compains eta Rosa Iriarte-aren aurkako, berriz, maiatzaren 17an hasiko da.

Guardia Zibilak gauzatu zituen atxiloketa horiek guztiak, eta inkomunikatuta lau eta bost egun arteko aldia eman ondoren, tortura-salaketa bana egin ziren. Epaileak kasu guztietan eman zion ezezkoa habeas corpus prozeduraren eskaerari.

Auzitegi-medikuek beren txostenetan adierazitakoaz gain, momentuz bi ebazpen eta eskaera sustatu dira nazioartean:

Lehenik eta behin, Tortura eta Zigor edo Traitera Bidegabeak edo Iraingarriak saihesteko Batzordeak, Europako Kontseiluaren mendeko organoa den horrek, bi atxiloketa- eta inkomunikazio-prozesu horietan egindako tortura-salaketak bildu eta sinesgarritasuna aitortu zien 2011ko txostenean, 12. eta 14. idatz-zatietan, hain zuzen.

Bigarrenez, Strasbourgeko Giza Eskubideen Auzitegiak Espainiako Estatu zigortu zuen 2015eko maiatzaren 5ean emandako epaian, Jon Patxi Arratibelek egindako tortura-salaketa ez ikertzeagatik. Pertsona horrek ATZNUGAL ("Laguntza" alderantziz) idatzi zuen inkomunikazio-aldian Guardia Zibilaren aurrean egindako aitortpenean. 2014an ordurako Auzitegi horrek Espainiako Estatu zigortu zuen, Oihan Ataun gazte nafarrak egindako tortura-salaketak ez ikertzeagatik.

Gainera, oraindik ere badago Strasbourgeko Giza Eskubideen Auzitegiaren epaiaren zain dagoen hirugarren tortura-salaketa bat, Xabier Beortegik egin zuena eta sumariotik kanpo gelditu dena.

Nafarroako Parlamentuan behin baino gehiagotan hitz egin da torturaz, hori saihesteko baliabideen faltaz eta are Torturaren Prebentziorako Europako Itunaren aginduak ez betetzeagatik eta aurkeztutako salaketa ugari ez ikertzeagatik Espainiako Estatu behin eta berriz zigortu izanaz.

Erakunde askok (hala Amnesty International-ek nola CEPTk berak) hainbatetan utzi dute agerian Espainiako Estatuak ez daukala inolako asmorik jardun hori behin betiko desagerrarazteko, inpunitate eta inkomunikazio guneei eusten diela eta errealtate horren inguruko edozein salaketa oztopatzen duela.

Auzitegi Nazionalako epaileek eurek ere aitortu dute errealtate hori, eta, horren harira, baliogabetzat jo dituzte polizia-bulegoetan besteei zein norberari errua egozteko egin diren aitortenak. Horren ondorioz, Segiko kideak zirelakoan epaitu beharreko dozenaka gazte absolbitu egin dira. Auzitegi Nazionalak berak, absoluzio-epai horietan, sinesgarritzat jotzen ditu tortura-salaketak, eta adierazi du inkomunikazio aldiaren egindako aitortenak ez zirela norberaren askatasunari eta borondateari jarraikiz egin.

Uste dugu unea dela Nafarroako Parlamentuak errealtate horren aurrean argi eta garbi jarrera hartzeko eta, ahal duen neurrian, mota horretako gertaerak aitortzeko behar diren konpromisoak hartzeko, torturak edo tratatu txarrak jasan dituzten pertsonak babesteko eta horrelakorik berriro ez gertatzea bermatzeko.

Hori dela eta, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak erabat baztertzen ditu tortura-jardunak, eta Espainiako Gobernuak premiatzen du atxilotuta inkomunikatua eta babesgabetasun-egoerak ahalbidetzen dituen salbuespenezko legedia indargabetu dezan eta, betiere,

atxilotuen eskubide eta berme guztiak errespetatzen direla ziurta dezan.

2. Nafarroako Parlamentuak aintzat hartzen ditu zenbait erakunde –adibidez, Amnesty International-ek edo Tortura saihesteko Europako Batzordeak– argitaratu dituzten txosten ugariak, baita Giza Eskubideen Europako Auzitegiak Espainiako Estatuaren aurka jaulkitako zigor-epaiak ere. Alde horretatik, Espainiako Gobernuak premiatzen du Torturaren aurkako Ituneko ezarritako printzipioak aintzat har ditzan eta Strasbourgeko Auzitegiaren doktrina errepikatua, tortura-salaketa guztiak zorrotz ikertzea gomendatzen duena, bete dezan.

3. Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna adierazten die torturak eta tratatu txarrak jasan dituzten pertsona guztiei, eta Nafarroako Gobernuak premiatzen du zenbait nafar herritarrek egindako tortura-salaketak iker ditzan eta torturen eta tratatu txarren biktima izan direnen aintzatespena eta ordaina bultzatzen, adiskidetzea zein egoera horiek ez errepikatzearen konpromisoa ahalbidetzeko asmoz.

4. Nafarroako Parlamentuak adierazten du nahi duela berme prozesal guztiak errespetatzea inkomunikazioak eta tratatu txarrek akusazioak baldintzatu ahal izan dituzten prozesu judizialeetan eta, bereziki, laster egingen diren epaiketei dagokienez.

Iruñean, 2016ko apirilaren 13an

Foru parlamentariak: María Solana Arana, Bakartxo Ruiz Jaso, Laura Pérez Ruano eta José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publiko eta pribatuetan eskolatzeari buruzko arauak alda ditzan, ekitatearen, sozializazioaren eta diskriminazio-ezaren irizpideak baliatuta.

IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publiko eta pribatuetan eskolatzeari buruzko arauak alda ditzan, ekitatearen, sozializazioaren eta diskriminazio-ezaren irizpideak baliatuta.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko apirilaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkezten du, aurreko Osoko Bilkurako hezkuntzari buruzko jabelduratik heldutakoa, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Gobernuek bultzatu duten eskola-antolamenduaren ezaugarri bat izan da, batez ere azken hamar urteotan, ikastetxeak eta ikasleak zenbait ezaugarriren arabera sailkatzea: jatorria, sexua, erlijioa, familien maila sozioekonomikoa, etnia, eta abar.

Hiriguneetan, zehazki, ikasle-kontzentrazioak sortu dira hainbat ikastetxetan, halako moduan non eskola-populazioa ikastetxeetan banatu den aintzat hartu gabe ez familien ingurune fisiko eta sozialetiko hurbiltasunari buruzko irizpideak, ez sozializaziokoak, ez ingurunearekiko interakziokoak, ez elkarbizitzakoak, ez gizarte-kohesiokoak. Eskola-antolamendu hori eraendu eta eraentzen duten irizpideek botere-taldeen interes partikularrei erantzuten diete batez ere, hezkuntza berezitu bat nahi dutenak gizarte-talde jakin batzuentzat.

Eskolatzeari eta eskola-antolaketari buruzko politika horrek eskaintzaren eta eskariaren antolamendu bat sustatu du, zeinak ez dituen sustatzen aukera-berdintasuna, hezkuntza-konpentsazioa, sozializazioa eta eskola adineko populazioaren baitako bizikidetasuna.

Nafarroan, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren arauko garapenak, zenbait trikimailuren bidez, saihestu egin ditu eskolatzeari dagokionez indarrean dagoen lege horren 81. eta 84. artikulua.

Ikasle-onarpena arautzen duten foru xedape-nek eragin eremuak ezartzen dituzte, eta eskolatzetza-batzorde orokorra zein tokiko eskolatzetza-batzordeak arautzen dituzte, baina ez dira, ordea, konpentsazio- eta prebentzio-jokabiderako arauak, eskolatzeko eta ikasleek ekitatezko sarbidea izateko baldintza mesedegarrienak bermatzera bideratuak. Beraz, ikastetxeen eta ikasleen sailkapen bat ekarri dute.

Aurreko Osoko Bilkuran, Hezkuntzako kontseilariak bere gain hartu zuen araudi hori aldatzeko konpromisoa, halako moldez non lehene-tsiko baita ikasleak beren etxearen inguruneko ikastetxe publiko batean eskolatzeta, eta beren familiak aukeratutako hizkuntz ereduan.

Horregatik guztiagatik, Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak honako erabaki proposamena aurkezten du:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publiko eta pribatuetan eskolatzeari buruzko arauak alda ditzan, ekitatearen, sozializazioaren eta inolako inguruabarrengatik diskriminaziorik ezaren irizpideak baliatuta; eta, halaber, prozedura bat ezar dezan, gaur egun ikastetxe jakin batzuetan dauden ikasle-kontzentrazioak zuzentze aldera.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ikasleak hezkuntza ez-unibertsitarioko Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoetan eta pribatu itunduetan onartzeari buruzko araudia alda dezan, ikasleak onartzeari buruzko irizpide arruntak ezarriz, zeinetan lehenetsiko baita ikasleak eskolatzeta beren etxetik

gertu dagoen ikastetxe publiko batean eta beren familiek aukeratutako hizkuntz ereduan, eta, halaber, irizpide arruntak ezarriz, aipatu ildotik doan diskriminazio positibo nabarmen bat ahalbidetzeko.

3. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du ikastetxeen eragin eremuak ezartzen dituen eskolatzearaudia alda dezan, eskolatzeareremu txikiagoak ezarriz Iruñean eta Iruñerrian eta Tuteran ere bai, ingurunean errotutako ikastetxeak sustatze aldera, ingurune horretan esku hartu eta parte hartu ahalko dutenak.

4. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du eskolatzear -batzordeak arautzen dituen araudia alda dezan, batzorde horiek aukera izan dezaten eskolatzeararen hobekuntzan esku hartzeko eta Hezkuntza Departamentuari propo-

samenak igortzeko, ikasleak era orekatuan eskolatzear laguntze aldera, araudi orokorra bete beharra ezertan ukatu gabe.

5. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du prozedurak ezar ditzan, berandu sartu diren ikasleak aldi baterako eskolatzear eta aukera emanen dietenak hurrengo ikasturtearen hasieran ikastetxez aldatzeko.

6. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du alda ditzan 0-3 urteko ikasleak ikastetxe publikoetan onartzeko irizpideak, halako moduan non langabezia dauden familiak ez diren kalteturik suertatuko, lana duten familien aldean.

Iruñean, 2016ko apirilaren 14an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Altsasuko Josefina Arregui Klinika espezializatuaren funtsezko lana aintzatetsi dezan.

GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA, PODEMOS-AHAL DUGU ETA NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa, Podemos-Ahal Dugu eta Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeek eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Altsasuko Josefina Arregui Klinika espezializatuaren funtsezko lana aintzatetsi dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2016ko apirilaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu dute, Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Orain dela gutxi Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuran erabaki bat onartu zen, aho batez. Bertan aintzatesten zen Josefina Arregui Klinika Psikogeriatrikoak demenzien esparruan –eta, zehazki, Alzheimerdun gaixoekin– egiten duen ezinbesteko lana. Gogorarazi behar da zentro espezializatu dela, pazienteari buruzko ikuspegi integrala erabiltzeagatik nabarmentzen dena. Hau da, sintoma kliniko akutuek egonkortzeko asistentzia mediko-farmakologiko hutsaz harago doa. Gaixo bakoitzaren ebaluazio integral, hurbileko eta individualizatutik abiatutik, diagnostikoa egin eta sendatzeko edo sintomak egonkortzeko esku hartzen da, gaixotasunaren bilakaera aurreikusten da eta gaixoa ohiko ingurunera itzuli edo egokitzen josten den baliabidera bideratzen da. Hori guztia

egiten da diziplina anitzeko talde bati esker; taldeak harreman estua izaten du gaixoaren familiarekin, hari pazientearen bilakaeraren berri emanez eta harekin batera laguntza-lana eginez.

Josefina Arregui Klinika Psikogeriatrikoa ez da adinekoak artatzeaz arduratzen den egoitza bat. Klinikaren filosofia estaldura sozialetik harantzago doa: klinikak ematen duen asistentzia osasun izaerakoa da, eta bertan diziplina anitzetatik helzen zaio demenziak eta beste patologia psikiatriko batzuk dituzten adinekoek duten arazoari. Izan ere, arazoa noiz agertzen den eta gaixotasunaren bilakaera eta pronostikoa zein diren kontuan hartuta, arreta-maila handienak eskaini behar zaizkio horri. Horrela, helburu orokorrak buru-asaldura organikoak (batez ere, demenziak) dituzten pazienteen (gehienbat, adinekoak) diagnostikoa, tratamendua eta errehabilitazioa barne hartzen ditu. Beste aldetik, arreta psikogeriatrikoko ikerketa- eta irakaskuntza-programak garatzen dira.

Nafarroako Osasun Sistema ongi trebatuta dago adinari lotutako osasun-arazo nagusiak diagnostikatzeko eta horien jarraipena egiteko; adibidez,

bihotz-gutxiegitasuna, bronkitis kronikoa, hipertentsio arteriala, diabetesa... Baina oraindik lan handia egin behar du, patologia organiko larriez gain horiei lotutako buru-gaixotasuna daukan adinekoari osotasunezko tratamendua eman ahal izateko. Horregatik, ugariak izan ohi dira sendagai asko hartzearen ondorioz desorekatuta egoitegatik ospitaleratu beharreko gaixoak. Izan ere, pazienteak hainbat espezialitatetatik dabil atzera eta aurrera, eta espezialista bakoitzak bere tratamendua agintzen dio, pazientearen egoeraren gaineko ikuspegi orokor bat izan gabe. Familiak gaixoaren joan-etorri hori jasaten dute, lehen mailako arretako, arreta espezializatuko edo larrialdietako kontsultetara joan behar hori, diziplinarteko koordinaziorik egin gabe.

Nafarroako Alzheimerdun eta Bestelako Dementziadun Gaixoen Senideen Elkarteak (AFAN) funtsezkotzat jotzen du klinikako profesionalekin zuzeneko harremana izatea. Elkarteak klinikako langileen laguntza eta instalazioak eskura

izan ditu, senideentzako laguntza-taldeak eta prestakuntza-ikastaroak egiteko.

Laburbilduta, bere hogeitau urteetan klinikak bere eraginkortasuna eta jardunbide egokiak erakutsi ditu, prestakuntza ematen die hainbat esparrutako profesionalei, eta osasun sarearen osagarria da. Halaber, paziente zehatz batzuk bere gain har ditzakeen zentro bakarra da, eta, biztanleen pixkanakako zahartzea kontuan hartuta, aurreikus daiten gero eta beharrezkoagoak izan direla mota horretako egoitza-plazak. Uste dugu bai zentroak bai Nafarroako biztanleek merezi dutela klinikak bere jarduerari eustea ahalik eta modu egonkorrean eta haren baliabideak ahalik eta modu handiengan aprobetxatuta.

Horregatik, aldarrikatu nahi dugu herritar guztiek eta, bereziki, demenziaren ondoriozko 10.000 gaixo kroniko baino gehiago biltzen dituen kolektibo horrek osasun-baliabideak baldintza beretan jasotzeko daukaten eskubidea.

Erabaki proposamena:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, Nafarroako Parlamentuak egin berri duenez, aintzatets ditzan bai Altsasuko Josefina Arregui klinika espezializatuak erreferentzia zentro gisa gauzatzen duen funtsezko lana bai klinikak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren sare publikoaren barnean behar duen egonkortasuna. Edo, behintzat, egungo ituna sakondu dezan, ezinbesteko baliabide horren bideragarritasuna bermatze aldera.

2. Epe ertain-luzera, Alzheimer gaixotasunak gero eta pertsona gehiagori eraginen die Nafarroan. Hori dela eta, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du azterlan bat egin dezan, errealitate hori kontuan hartuta, eta Erriberan Ospitalegune bat sortzearen aukera azter dezan, Nafarroako herritar guztiei ekitatea eta irisgarritasuna bermatzeko asmoz.

Iruñean, 2016ko apirilaren 14an

Foru parlamentariak: Koldo Martínez Urionabarrenetxea, Asun Fernández de Garayalde y Lazkano, Laura Pérez Ruano, María Chivite Navascués eta Marisa de Simón Caballero

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak berresten baitu 16/2012 Errege Lege-dekretuaren aurka dagoela, eta berriz ere adierazten baitu Nafarroan bizi diren pertsona guztiei osasun laguntza jasotzea bermatzen dien foru legearekiko konpromisoa.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2016ko apirilaren 18an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak berresten du PPreu Gobernuak bultzatutako 16/2012 Errege Lege-dekretuaren aurka dagoela, hura onetsi eta lau urte iraganik, eta berriro ere adierazten du Nafarroan bizi diren pertsona guztiei haien administrazio-egoera gorabehera osasun laguntza jasotzea bermatzen dien 8/2013 Foru Legearekiko konpromisoa.

2. Nafarroako Parlamentua konprometitzen da Espainiako Gobernuari adieraztera indargabetu beharra dagoela Osasun Sistema Nazionalaren estalduraren unibertsaltasuna berrezartzeko 16/2012 Errege Lege-dekretua, ahalik eta parlamentu-indar eta autonomia erkidego gehien adostasuna bilatuz, eta, halaber, osasun arloko legeria aldatu behar dela, bermatu ahal izateko osasun sistema publiko, unibertsal, kalitatezko eta doako baten iraunkortasuna, herritarrei ekitatezko sarbidea eskaintzen diena eta pertsona guztien-dako oinarritzko zerbitzu-zorro bat edukita, deszentralizazio handiko egoera batean.

3. Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernuari exijitzen dio erretira dezan 8/2013 Foru Legearen aurka jarritako errekurtsioa, oztopatu egiten dituelako Nafarroako gehiengo sozial eta politikoak osasun unibertsalaren eskubidea bermatze aldera hartutako erabakiak.

4. Nafarroako Parlamentuak bipil arbuizaten du Espainiako Estatuan osasun bazterketako egoera oraindik ere bere horretan egotea, eta Espainiako Gobernua eta Kongresua premiatzen ditu sistema unibertsala berrezarriko duen lege-erreforma bat egin dezaten, “aseguratu” eta “onuradun” figurak kenduz eta pertsona guztiei aitortuz osasun laguntza berdintasun-baldintzetan jasotzeko eskubidea, edozein dela ere haien administrazio-egoera. Halaber, malgutasunari buruzko klausulak sartuko dira, uneoroko arreta bermatzeko, halako moduan non betebeharrak frogatu ez izana (adibidez, erroldatzea, eskubidearen esportaziorik ezaren ziurtagiria, eta abar) azkenean ez den oztopo gaindiezin bihurtuko. Era berean, ebaluaziorako eta jarraipenerako mekanismoak hartuko dira kontuan, eragin-kortasuna bermatu ahal izateko.”

Iruñean, 2016ko apirilaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten baititu Boko Haram erakunde kriminalak egindako indarkeria-ekintza guztiak.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2016ko apirilaren 18an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere gaitzespenik irmoena adierazten du, Boko Haram erakunde kriminalak egindako indarkeria-ekintza guztiak direla-eta; bereziki, Nigeriako Chibok-eko eta Warabeko herrietan egindako emakume- eta neskatu-bahiketa izugarriak direla-eta. Halaber, Nafarroako Parlamentuak gaitzetsi egiten ditu erli-

jio-sentimenduaren instrumentalizazioa eta fanatismo islamikoaren erabilera maltzur eta erasozkoa, zeinaren bidez justifikatzen baita kristau erki-degoenganako erasoak, ez soilik Nigerian, azkenaldia honetan jakin dugun bezala, baizik eta munduko beste herrialde batzuetan ere.

2. Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du informazio-eskariekin bat egin dezan, gaitzespen-adierazpenak berrets ditzan eta bere babesa eman diezaien askatasunaren eta emaku-

meen eskubideen defentsarako, esklabotzaren aurkako nahiz erradikalismo islamikoari aurre egiteko mugimendu eta gizarte-ekimenei.

3. Nafarroako Parlamentuak bere elkartasun osoa adierazten die Boko Haram mugimendu estremistaren erasoen biktima guztiei, eta bereziki egiten du aldarri Nigeriako kristau erkidegoko emakumeen eta neskatuen bahiketak azkar eta onik konpontzearen alde.

4. Halaber, Espainiako Gobernuak premiazten da:

a) Trabak kentzen lagundu dezan, nazioarteko erkidegoari erakunde horren aurkako borrokan

eraginkortasunez esku hartzea eta horren ardurdunak eta buruzagi nagusiak atxilotzea eragozten diotenak.

b) Nazio Batuen baitan bultza dezan:

– lantalde bat sortzea, eraginkortasunez lagunduko duena mugimendu fanatikoek sortzen duten indarkeriaren gaitza desagerrarazten.

– nazioarteko laguntza-tresna bat abiaraztea, Nigeriako erakundeekin lankidetzan jardutekoa, fenomeno horri batera aurre egiteko?

Iruñean, 2016ko apirilaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna eta babesa eskaintzen baitizkie Ekuadorko lurrikarak kaltetutako pertsona guztiei.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2016ko apirilaren 18an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna eta babesa eskaintzen dizkie iragan larunbatean, apirilak 16, epizentroa Ekuadorko Pedernales hirian zeukala gertaturiko lurrikararen ondorio suntsizailleek kaltetutako pertsona guztiei.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako herriaren babesa adierazten du, bai eta bere ustea ere, lurrikarak ukitutako eremuak jakinen duela, beharrezkoa den laguntza guztiarekin, lurrikarak eragindako kalte larriak gainditzin. Hartara, Ekuadorko Errepublikaren Espainiako enbaxadari helaraziko zaio adierazpen hau.

3. Nafarroako Parlamentuan ordezkariak izaten dituzten indar politikoek beren borondatea eta babesa adierazten dute, lurrikarak tragikoki zigortutako eskualde horretan denon artean normaltasuna berreskuratzen laguntzeko.

4.- Nafarroako Parlamentuak bere babes eta maitasun osoa helarazten dizkio une latz hauetan Nafarroako ekuadortarren erkidegoari.

5.- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio bere laguntza eta lankidetzak eskain diezazkion Ekuadorko herriari”

Iruñean, 2016ko apirilaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

F saila:
GALDERAK

Galdera, Nafarroako Gobernuak Tutera aldean A-68 autobiderako sarbideak ixteko harturiko erabakiari buruzkoa.

LUIS CASADO OLIVER JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Luis Casado Oliver jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuak Tutera aldean A-68 autobiderako sarbideak ixteko harturiko erabakiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko apirilaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeko Luis Casado Oliver jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek egiten ditu, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun ditzan:

Nafarroako Gobernuak iragan martxoan erabaki zuen Tutera aldean A-68 autobiderako sarbideak ixtea. Erabaki horrek alarma eta eztabaida piztu ditu Erriberako hiriburuan, institutuko bidetiko sarbidea dela-eta; hori jada eztabaidatu da Parlamentu honetan.

Itxiera horien ondorioa da erabat baldintzatzen duela nekazaritzako ibilgailuen trafiko guztia, Tuterako hiribarnetik zirkulatzera behartuta suertatzen baitira, fisikoki ezinezkoa dutelako dauden bideak erabiltzea.

Hori dela eta, honakoa galdetzen dugu:

– Nafarroako Gobernuak kontuan hartu al du hori?

– Kontuan hartu baldin badu, zer balorazio egiten du horretaz?

– Tuterako Udalari helarazi al zion balorazio hori?

– Udalak onartu egiten al du?

Tutera, 2016ko apirilaren 8an

Foru parlamentaria: Luis Casado Oliver

Galdera, Nafarroako Polizia Buruzagitza Nagusiari Espainiako bandera emateko ekitaldiari buruzkoa.

SERGIO SAYAS LÓPEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Sergio Sayas López jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Polizia Buruzagitza Nagusiari Espainiako bandera emateko ekitaldiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko apirilaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeko Sergio Sayas Lópezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuko lehendakari Uxue Barkosek Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Polizia Buruzagitza Nagusiari Espainiako bandera emateko ekitaldian zergatik ez zen egon Nafarroako Gobernuko kiderik?

Iruñean, 2016ko apirilaren 11n

Foru parlamentaria: Sergio Sayas López

Galdera, Panaman eta beste zerga paradisu batzuetan zergadun nafarrak ustez egoteari buruzkoa.

JOKIN CASTIELLA IMAZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Jokin Castiella Imaz jaunak aurkeztutako galdera, Panaman eta beste zerga paradisu batzuetan zergadun nafarrak ustez egoteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko apirilaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Jokin Castiella Imaz jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Egoitza soziala Panaman daukaten eta, jakin izan dugunez, tributu-zama arintzeko xedez erabiltzen ziren *offshore* enpresei buruz berriki argitaraturiko informazioak ikusita,

Nafarroako Gobernuak zer informazio dauka Panaman eta beste zerga paradisu batzuetan ondarea izan lezakeen zergadun nafarrak egoteari buruz?

Iruñean, 2016ko apirilaren 12an

Foru parlamentaria: Jokin Castiella Imaz

Galdera, 2016ko lehen hiruhilekoan Nafarroan sortutako enpresen kopuruari buruzkoa.

ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, 2016ko lehen hiruhilekoan Nafarroan sortutako enpresen kopuruari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko apirilaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Garapen Ekonomikorako lehendakariordeak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Espainiako Erregistratzaileen Elkargoaren datuen arabera, merkataritza-sozietateen erateen kopurua 2016ko lehen hiruhilekoan Espainia osoan hazi da, salbu eta Nafarroan eta Euskal Autonomia Erkidegoan.

Zure ustez, zeri zor zaio 2015eko lehen hiruhilekoren aldean 2016ko lehen hiruhilekoan hazi ez izana Nafarroan sortutako enpresen kopurua?

Iruñean, 2016ko apirilaren 14an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, Nafarroako Unibertsitate Klinikatik Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzura igaroko diren gaixoen trantsiziorako lan-taldea osatuko duten Nafarroako Gobernu eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko profesionali buruzkoa.

MÓNICA DOMENECH LINDE ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mónica Domenech Linde andreak aurkeztutako galdera, Nafarroako Unibertsitate Klinikatik Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzura igaroko diren gaixoen trantsiziorako lan-taldea osatuko duten Nafarroako Gobernu eta Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko profesionali buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko apirilaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikia dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Mónica Doménech Linde andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osasuneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzuteko:

– Nafarroako Gobernu eta Osasunbideko zer profesionalak osatzen dute Nafarroako Unibertsitatea Klinikatik Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzura igaroko diren gaixoen trantsiziorako lan-taldea?

– Lan-taldea zenbat aldiz elkartu da, eta nola helaraziko du historial mediko eta historia klinikoe-tako informazioa, gaixoen datu-konfiden-

tzialtasunerako eta -babeserako eskubideak errespetatuta?

Iruñean, 2016ko apirilaren 14an

Foru parlamentaria: Mónica Doménech Linde

Galdera, uholdeek eragindako kalteak minimizatzeko eta prebentzioaren arloan lan egiteko xedez Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren, toki entitateen eta ureztatzaile-erkidegoen ordezkariekin lan-mahai bat eratze aldera Nafarroako Gobernuak egindako urratsei buruzkoa.

SANTOS CERDÁN LEÓN JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Santos Cerdán León jaunak aurkeztutako galdera, uholdeek eragindako kalteak minimizatzeko eta prebentzioaren arloan lan egiteko xedez Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren, toki entitateen eta ureztatzaile-erkidegoen ordezkariekin lan-mahai bat eratze aldera Nafarroako Gobernuak egindako urratsei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko apirilaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko foru parlamentari Santos Cerdán León jaunak,

Legebiltzarreko Erregelamenduak ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldearen mozio bat onetsi zuen iragan otsailaren 11n, lehendabiziko puntuan Nafarroako Gobernua premiatzen zuena –zehazki, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazio Departamentua– lan-mahai bat eratzeraz Nafarroako Gobernuaren, Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren, toki entitateen eta ureztatzaile-erkidegoen ordezkariekin, uholdeek eragindako kalteak minimizatzeko eta prebentzioaren arloan lan egiteko xedez.

– Zer urrats egin ditu Nafarroako Gobernuak lan-mahaia eratzeko?

– Zer entitateekin jarri da harremanetan? Zer erantzun jaso du?

Iruñean, 2016ko apirilaren 14an

Foru parlamentaria: Santos Cerdán León

Galdera, Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioarekin apirilaren 19an egin beharreko bilerari buruzkoa.

JUAN LUIS SÁNCHEZ DE MUNIÁIN LACASIA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia jaunak aurkeztutako galdera, Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioarekin apirilaren 19an egin beharreko bilerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko apirilaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Juan Luis Sánchez de Muniáin jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkezten ditu, Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilari

Mikel Aranburuk ahoz erantzun diezazkion Osoko Bilkuran:

– Egia al da, 2016ko apirilaren 14ko Osoko Bilkuran adierazitakoaren kontra, Aranburu kontseilariak hitzordua zeukala Ogasuneko eta Administrazio Publikoetako Ministerioan apirilaren 19rako?

– Egia al da Aranburu jaunak Hitzarmen Ekonomikoaren auzia bilera horretan jorratzeari uko egin ziola?

– Egia al da Hitzarmen Ekonomikoa bezain gai garrantzitsu eta konplexu bat telefonoz jorra zedin planteatzera heldu zela?

– Onartu al du, azkenean, apirilaren 19an bilera joatea, Hitzarmen Ekonomikoari buruz hitz egiteko?

– Zergatik ezkutatu dio Osoko Bilkurari apirilaren 19ko bilerarako proposamen hori?

Iruñean, 2016ko apirilaren 14an

Foru parlamentaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin

Galdera, ikasleak Haur Hezkuntzako bigarren zikloan sartzeko adina malgutzeko aukerari buruzkoa.

CARLOS GIMENO GURPEGUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Gimeno Gurpegui jaunak aurkeztutako galdera, ikasleak Haur Hezkuntzako bigarren zikloan sartzeko adina malgutzeko aukerari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko apirilaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Carlos Gimeno Gurpegui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak pentsatu al du ikasleak Haur Hezkuntzako bigarren zikloan (3-6) sartzeko adina malgutzea Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan, Haur Hezkuntzako unitateak mantentze aldera aurrematrikula gutxiko Nafarroako herrietan, beste horien iraupena arriskuan egon bailiteke?

Iruñean, 2016ko apirilaren 14an

Foru parlamentaria: Carlos Gimeno Gurpegui

Galdera, Martzillako Marqués de Villena Bigarren Hezkuntzako Institutuaren hobetze-planari buruzkoa.

CARLOS GIMENO GURPEGUI JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Gimeno Gurpegui jaunak aurkeztutako galdera, Martzillako Marqués de Villena Bigarren Hezkuntzako Institutuaren hobetze-planari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko apirilaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeari atxikitako Carlos Gimeno Gurpegui jaunak,

Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza Batzordeak martxoaren 23an Martzillako "Marqués de Villena" BHIra egindako bisitaren ostean, ikastetxearen arduradunek Legebiltzarreko taldeei ikastetxea hobetzeko plan bat eskatu diete, ikastetxeak dituen kalteak ikusita; plan horrek ikastetxea handitzeko proiektu bat ere jasoko du.

Erabakirik hartu al da gaur den egunera arte, ikastetxeak dituen kalteak konpontzeari eta bertako profesionalek Hezkuntza Batzordeari eskatu zioten hobekuntza-planari begira?

Iruñean, 2016ko apirilaren 14an

Foru parlamentaria: Carlos Gimeno Gurpegui

Galdera, Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak apirilaren 14ko Osoko Bilkuran egindako adierazpenei buruzkoa, esan baitzuen Espainiako Gobernuak ez ziola jaramonik egiten Hitzarmena negoziatzeko bilerarako eskaerari.

ANA MARÍA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak apirilaren 14ko Osoko Bilkuran egindako adierazpenei buruzkoa, esan baitzuen Espainiako Gobernuak ez ziola jaramonik egiten Hitzarmena negoziatzeko bilerarako eskaerari.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko apirilaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Aranburu kontseilariak iragan apirilaren 14ko Osoko Bilkuran egindako adierazpenak ikusita –bere esanetan, Espainiako jarduneko Gobernuak ez zien jaramonik egiten Hitzarmenari buruzko bilera bat egiteko bere eskariei–, honako galdera hau aurkeztu dugu:

Onartzen al duzu ez zenuela egia esan, adierazi zenuenean Espainiako Gobernuak ez ziola jaramonik egiten Hitzarmena negoziatzeko bilera bat egiteko zure eskariari?

Iruñean, 2016ko apirilaren 14an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, Nafarroako Gobernuaren Ordezkaritza Espainiaren EBko Ordezkaritza Iraunkorrean egotearen kostuari buruzkoa.

ÓSCAR ARIZCUREN POLA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Óscar Arizcuren Pola jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuaren Ordezkaritza Espainiaren EBko Ordezkaritza Iraunkorrean egotearen kostuari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko apirilaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Óscar Arizcuren Pola jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion:

– Zein da Nafarroako Gobernuaren Ordezkaritza Espainiaren EBko Ordezkaritza Iraunkorrean egotearen kostu ekonomikoa?

– Ordezkaritzaren kokalekuari buruzko beste aukerarik aztertu baldin baduzue, zein da horien kostua?

Iruñean, 2016ko apirilaren 8an

Foru parlamentaria: Óscar Arizcuren Pola

Galdera, Nafarroako Gobernuaren Europako Ordezkaritzan Europako gaiak direla-eta jasotako kontsultei buruzkoa.

ÓSCAR ARIZCUREN POLA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Óscar Arizcuren Pola jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuaren Europako Ordezkaritzan Europako gaiak direla-eta jasotako kontsultei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko apirilaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Óscar Arizcuren Pola jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion:

– Nafarroako Gobernuaren Europako Ordezkaritzan zenbat kontsulta jaso dira Europako gaiak direla-eta, politikei nahiz Europako programei edo deialdiei dagokienez, Europar Batasunean jorratzen diren arlo guztietan?

– Gehien errepikatzen diren gaien laburpena.

Iruñean, 2016ko apirilaren 8an

Foru parlamentaria: Óscar Arizcuren Pola

Galdera, Nafarroako Parlamentutik Europako bandera kentzeari buruzkoa.

ÓSCAR ARIZCUREN POLA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Óscar Arizcuren Pola jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Parlamentutik Europako bandera kentzeari buruzkoa.
2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.
3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko apirilaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Óscar Arizcuren Pola jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion:

– Zuen ustez, Europako bandera Nafarroako Parlamentutik kentzeak lagundu ala kaltetu egiten ditu Nafarroako Gobernuaren Bruselako ordezkariak ordezkatzeko dituen interesak?

Iruñean, 2016ko apirilaren 8an

Foru parlamentaria: Óscar Arizcuren Pola

Galdera, Ecofin-en lan-taldeen bilereari buruzkoa.

ÓSCAR ARIZCUREN POLA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Óscar Arizcuren Pola jaunak aurkeztutako galdera, Ecofin-en lan-taldeen bilereari buruzkoa.
2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.
3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko apirilaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Óscar Arizcuren Pola jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion:

– Ecofin-eko lan-taldeen bileretan egon al da, foru Gobernuari laguntzeko eginkizunetan?

Iruñean, 2016ko apirilaren 8an

Foru parlamentaria: Óscar Arizcuren Pola

Galdera, Aditech-ek Espainiaren EBko Ordezkaritza Iraunkorretik alde egiteari buruzkoa.

ÓSCAR ARIZCUREN POLA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Óscar Arizcuren Pola jaunak aurkeztutako galdera, Aditech-ek Espainiaren EBko Ordezkaritza Iraunkorretik alde egiteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko apirilaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako

kide den Óscar Arizcuren Pola jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion:

Europako Ekintza Planaren ildo nagusiak aurkezte aldera egindako agerraldian, Ana Ollo kontseilariak adierazi zuen Aditech-en ordezkaria ezin zela egon Espainiaren EBko Ordezkaritza Iraunkorrean, eta Espainiaren EBko Ordezkaritza Iraunkorren berari egotzi beharreko erabaki bati jarraikiz alde egin behar izan zutela. Halere, Aditech-en Bruselako ordezkaria urtebetez egon zen Espainiaren EBko Ordezkaritza Iraunkorrean, eta bulegoa lekuz aldatzeko erabakia Aditech-ena izan zen, eta ez zuen inolako zerikusirik eduki Espainiaren EBko Ordezkaritza Iraunkorrek.

– Hori horrela izan zela baieztatu dezakezu?

Iruñean, 2016ko apirilaren 8an

Foru parlamentaria: Óscar Arizcuren Pola

Galdera, Nafarroako Gobernuaren Bruselako Ordezkaritzaren web orriari buruzkoa.

ÓSCAR ARIZCUREN POLA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko apirilaren 18an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Óscar Arizcuren Pola jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuaren Bruselako Ordezkaritzaren web orriari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2016ko apirilaren 18an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeari atxikita dagoen eta Nafarroako Gorteetako kide den Óscar Arizcuren Pola jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion:

Ordezkaritzaren web orriari EIES-Europari buruzko Informazioaren Euskal Sarearen berri ematen da. Haren web orriari irakur daitekeenez, EIES "Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan" Europako informazioari buruz erabilgarri dauden bitartekoak optimizatzeko sortu zen, eta helburu du, batetik, informazio hori "Euskadiko herritarrei eta erakunde publiko eta pribatuei ahalik eta modu azkarrean eta osatuenean ematea", eta bestetik, euskal erakundeak eta organismoak diren

informazio- eta dibulgazio-eginkizunetan koordinazio handiagoa lortzea.

– Zer dela-eta ematen da horren berri, zer esparruri dagokion ikusita? Zer irizpide baliatu dira hori bezalako estekak argitaratzeko?

